



HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO PARALISI EGOERA KEZKAGARRIA

Mezu honen bitartez **STEILAS** sindikatuak Haurreskolak Partzuergoaren kudeaketak bizi duen paralisi egoeraren aurrean bere kezka azaldu nahi du.

Egoera hau azken ikasturteetan mamitzen joan den arren, gerente aldairekin (2020ko urtarrilean) eta COVID19-ak eragindako osasun larrialdiarekin areagotu besterik ez da egin.

Gauzak horrela, martxoa hasieran gaur egun bizi dugun egoerak eztanda egin zuenetik **STEILAS** sindikatuak hainbat eskaera egin dizkio enpresako gerente berriari, Zorione Etxezarragari. Besteak beste, ahalik eta azkarren bilerak egiten hastea eskatu diogu. Haren erantzunak guztiz etsigarriak dira.

Ezin dugu ulertu Haurreskolak Partzuergoaren eta bertako langileen egunerokoa eta etorkizuna baldintzatzen dituzten hainbat gai mahai gaineratu eta gero, haren erantzuna *"jabetzen naiz hainbat gai daudela kezka eragin dutenak. Egoerak bere onera egin bezain laster argituko dizuet nire esku dagoena"* izatea. Egoerak bere onera egin orduko hainbat erabaki hartuta egon daitezkeela eta denbora asko irabazi dezakegula uste dugu, lanean jarriz gero.

Esate baterako, zer gertatuko da **2020-2021 ikasturteko matrikulazio kanpainarekin**? Urtero maiatzean izaten den kanpaina nola gauzatuko da aurten? Matrikulazio kanpaina honek hurrengo urte osoa baldintzatu dezake eta, enpresaren partetik, ez dugu etorkizuna argituko duen inolako erantzunik jaso. Oso larria iruditzen zaigu gerentea "jabetzen dela" esatera mugatzea hezitzaileon eta kudeaketa langileen lanpostuak eta Haurreskolak Partzuergoko etorkizun hurbila kolokan dauden bitartean. Informazioa izatea behar-beharrezkoa dugu momentu honetan.

Gainera, hezitzaileoi eragiten diguten hainbat prozesu eten egin dira eta ez dugu hauen inguruko inolako berririk, adibidez: baremazio prozesua, lanpostuen zerrendak, leku-aldatze lehiaketa... Prozesu hauen eta negoziazioaren garrantzia ahaztuta enpresak aldebakarrez hartuko al ditu erabakiak? Horrela ez izatea espero dugu **STEILAS**en.

Izan ere, Hezkuntza Sailak irakasleekin bilerak egin dituen moduan, zergatik ezin du Haurreskolak Partzuergoko gerentziak edota Hezkuntza Sailak berak gurekin berdina egin?

Mezu honen bitartez arduragabekeri honen aurrean ahotsa altsatu eta, beranduegi izan baino lehen, egin ditugun eskaeren inguruan erantzuna exijitu nahi dugu.

Egoeraren larritasunak **erantzunak eta erabakiak** eskatzen ditu, ez batek jakin zein aitzakiren atzean ezkutatzea.

2020ko apirilaren 20an.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

